

San Agustin konbentua berritzen urrian hasiko dira eta obrak urte eta erdi inguru iraungo dute

■ Jatorrizko konbentua zatia berritu egingo dute, eliza izan ezik ■ Beste eranskinak erabat bota eta berriak egingo dituzte, eta denera 1.461 m² izango ditu konbentua berriak ■ Konbentuak buelta guztian jardina izango du ■ Aurrekontua 1.243.000 euro ingurukoa da.


AGUSTINATAKO konbentua berritzeko obrak urrian hasiko dira, ezeren okerrik ez dela. Baimenak joan den maiatzaz ezkerroz emanak daude eta orain obra hasteko azken detaileak lotzen ari dira, Juan Ignazio Elizondo proiektua egin duen arkitektoak Kronikari adierazi dionez.

Agustinetako konbentua oso egoera justuan zegoen bai bizi-baldintza aldetik eta baita seguritate aldetik ere, eta goitik behera berritzea eskatzen zuen, Eliza izan ezik. Jatorrizko konbentua zen zatiak ordea, (klaustro buelta eta Eliza) monumentu artistiko-historiko daude konsideratuta eta horiek estruktura mantenduta berriku behar dira. Geroztik egin-dako eranskinak garaian garaiko beharrak eskatuta egin ziren eta ez dute balio arkitektonikorik. Horiek bota eta berriak egingo dituzte gaur eguneko beharretara egokituko direnak.

Itxura berrituta

Botako dituzten zatiak dira (planoan kolore grisez azaltzen direnak) konbentuaren atzeko eranskin luzea, ikuilua, terraza, senideak bisitan hartzeko etxea eta patioko balkoa. Horietatik bi zati egingo dituzte berriak: Konbentu atzeako eranskina, aurrekoa baino dezentez txikiagoa. Aurrekoak 1.482 m² zituen, eta berriak 361 m² izango ditu. Bi pisuko edifizioa izango da eta aszensorea izango du. Berria egingo duten beste edifizioa da monjen senideak bisitan hartzeko etxea.

Monjak, berez, nahi zuten zen eranskin guztiak bota eta dena jatorrizko konbentua zen horretan biltzea, baina, toki



Ezkerrean, konbentua berritu aurretik. Eskubian, konbentua nola geldituko den berritu eta gero. (Informazioa: Hernaniko Udala)

Monjak Araban

Agustinetako monjak gaur egunean Arabako Arzeniega herrian daude, 2001eko udaz-kena ezkerotzik. Hernanira etortzeko beste bi urte inguru beharko dira.

faltagatik soluzio hori ez da posible izan.

Konbentu berriak denera 1.461 m² izango ditu.

Obrako lanik zailena eta konplikatuena jatorrizko konbentua zena berritzea izango da, Joan Ignazio Elizondo arkitektoak Kronikari adierazi dionez. Monumentu Artistiko eta Historikoa izaki, detaile eta eta elementu arkitektoniko asko kontuan hartuta egin beharreko lana da, eta hori zaharra bota eta berria egitea baino konplikatuagoa da, Portuko arkitektoaren esanetan.

Obra bera urte eta erdi inguruoa izango bada ere, barruko ekipamendua egin eta abar, Elizondoren ustez beste bi urte beharko dira Agustinatako Monjak Hernanin izaterako. □

AGUSTINATAKO KONBENTUAREN ZENBAIT DATU HISTORIKO

Agustinatako konbentua 1544-47ko da. Leku horretan, garabateko San Juan parroquia zegoen, harresiz kanpora. 1512an, Frantziako tropak ia erabat txikituta utzi zuten. Orduan, parroquia herri barrura ekarri eta Iruñako obispooak baimena eman zion Juan Martinez de Ereñotzuri hor konbentua egiteko. Lehenbiziko lana eliza egitea izan zen, lehengo zaharraren gainean eta gero monjentzako erresidentzia egin zuten. 1577an, monjek koroa berritu zuten erabat, San Telmo maisuaren diseinua segitura. 1657an monjen senideak hartzeko eraskina jartzeko baimena lortu zuen konbentuak. Gerrak medio, monjek konbentua utzi egin behar izan zuten, 1638, 1719, 1794 eta 1808an. Gerra horietan tropak erabili zuten konbentua eta dezentezko txikizioak izan zituen, batez ere, Espainiako Independentzia Gerran. Konponketa lanak egiteko monja komunitateak gastu haundiak egin behar izan zituen, eta zenbait lur saldu ere bai. Gerra horietan, konbentuari buruzko informazio asko galdu zen. Gaurko garaietan, 1988an konbentuko eliza berritu zuten, eta 1997an kanpantorrean.



Antziola-Motor
Salmenta eta tailler zerbitzua




Ford Mondeo

3 aukera ezberdin, gusto ezberdinak:
 - 4 ateko elegantzia
 - 5 ateko deportiboa
 - Wagon familiarra

Etorri, ikusi eta aukeratu.

Antziola auzoa 12 - Hernani - Tel.: 943 55 57 72
Ordutegia: astean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13



musika eskola

DOINU-ZALE

KARABEL AUZOA, 4 • behe ezkerra

943 33 12 33 - 20120 HERNANI

MATRIKULAZIOA ZABALIK:
IRAILAREN 8tik 26ra (arratsaldean)

Musikaren lenguia	Tronpetxa
Pianoa	Triki-tixa
Akordeoia	Kitarra
Pandereta	Abesbatza
Bateria modernoa	Armonia

Helduentzako ikasketa bereziak - Talde txikiak - Musika lenguia 4 urtetik

PORTUKO SAN JUAN TXIKI JAIAK



Ume jolasetan izan ziren lokotxak biltzea, uretatik limoia ateratzea, irinetatik txanpona eta abar.

Sagardo probaketa, bertsolariak, anai-arteko bazkaria eta euskal jaialdia gaur Portun

■ Nafarroa eta Gipuzkoa neurako dira harri jasotzen, aizkoran eta haitzurrarekin enborra mozten ■ Urteroko asto karrera suspenditu egin zen atzo.

PORTUKO jaiak gaur dute azken eguna eta agurrerako utzi dituzte, sagardo probaketa, bertsolariak, bazkari herrikoia eta herri kirolak. Sagardo probaketan 10 sagardotegi izango dira, gehienak Hernanikoak eta giroari puntuan eusteko auzoko bi trikitilarri izango dira: Oihana eta Itsaso. Bertsotan Hernaniko eskola bi bertsolari ezagun: Jexux Mari Irazu eta Aritz Zerain. Eguerdian Anai-arteko bazkaria dute eta ondoren Danzaldia, Ttarla dantza taldearekin. Arratsaldean izango da jende gehiotsuena, Herri Kirol Jaialdian. Festak buka-

tzeko, gauean dantzaldia izango da eta nola ez, koloretako suziriak eta azken traka, aurten ere urrutitik entzuteko modukoa, seguru asko.

Asto karrera suspenditu
Urteroko asto karrera suspenditu egin behar izan zuten, astoak ekartzeaz arduratzen dezan azaltzerik izan ez zuelako. Lorontzi lehiaketan jende askok hartu du parte aurten ere. Aurtengo irabazlea Maria Jesus Leatxa izan da. Bigarren postuan Maria Jesus Talavera gelditu zen; hirugarrenean Maria Gallega; eta laugarren Mari Paz Armañanzas. □


EGITARAU

- 08:00 Egunsentia 70 CLBko kalibreko bonba eta suziriekin jaurtiketa.
- 08:30 Batxuri Zopa goiztiarrentzat
- 09:30 Diana Txistulariekin
- 11:00 Herri Meza
- 12:00 Sagardo probaketa eta auzoko trikitiliarriak.
- 12:30 Bertsolariak. Irazu eta Zerain.
- 13:00 XXXIX Toka eta Bote lehiaketa plazan.
- 14:30 Anai-arteko Bazkaria.
- 18:00 Ttarla taldearen Dantzaldia.
- Bukatzean** Euskal Jaialdia: Lehia Nafarroa eta Gipuzkoaren artean: harria jasotzen, Aizkoran eta Haitzurrarekin enborra moztutzen. Eta motozerrarekin erakustaldia.
- Ondoren** "M-N-Ezten" taldearekin dantzaldia eta jai bukaera: zezen suzkoia, koloretako suziriak, azken traka.



Lorontzi txapelketako sarituak.

■ ERREMONTIA - CASINO KURSAAL



Koteto Ezkurra iazko finaleko pelota aukeraketan.

Koteto Ezkurra finalera, Zeberio Ilri 30-17 irabazita

■ Ezkurra ez zuen kontrariorik izan ■ Finala Ezkurra eta Eizagirrek jokatuko dute datorren larunbatean.

KOTETO Ezkurra aidean irabazi zion bigarren final erdia Patxi Zeberiori eta finala jokatuko du buruz buruko Casino Kursaal txapelketan. Ezkurra 30-17 irabazi zuen partidua eta hasieran bateratu joan ziren arren, partidu erditik aurrera pelotari bakkala izan zen Galarretan. Ezkurra 24 tanto egitea nahikoa zuen finalera pasatzeko, joan den astean Eizagirren kon-

tra 30-29 irabazi zuelako. Eizagirre finalean dago joan den astetik, final erdieta jokatutako bi partiduetatik bat irabazi eta bestea 30-29 galdu zuelako.

Final ederra larunbatean
Datorren larunbatean jokatuko dute Ezkurra eta Eizagirrek finala, eta partidu bikaina espero da, final erdieta biek erakutsi duten joku ona ikusita. □

■ HITZ BITAN

✓ HELDUEN HEZKUNTZA - CEPA-HHI

Matrikula irailaren 2an irekiko da. Hernaniko Helduen Hezkuntza zentruak (CEPA-HHI) ireki du matrikulatzeko epea. Datorren kurtsorako eskaintza honakoa da: Formakuntza guztian eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH-ESO) Graduatu Titulia; eta Unibertsitatera eta Goi Mailako moduluetara sartzeko froga prestatzea. Formakuntza guztia eta DBH prestatzea doain da. Esandako kurtsoren batean matrikulatu nahi duenak Zentrutik bertatik (Antziola 62) pasa behar du irailaren 2tik irailaren 12ra. Matrikulatzeko ordutegia: goizez 10:00etatik 12:00etara eta arratsaldez 17:00etatik 19:00etara. Informazio gehiagorako: 943 335318.

✓ UDAL LIBURUTEGIA

Liburutegia irekita goiz eta arratsalde. Hernaniko Udal Liburutegiak neguko ordutegia hasiko du astelehenetik aurrera. Hemendik aurrera goizez eta arratsaldez egongo da irekita eta larunbat goiztan ere bai. Ordutegia: goiztan: 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldeetan: 16:00etatik 20:00etara.

✓ ODOL EMAILEAK

Asteartean odol ematea Anbulatorioan. Datorren asteartean, irailak 2, hileroke odol-ematea izango da Hernaniko Anbulatorioan. Ordutegia: 18:30etatik 20:30etara. □

IRAGARKI MERKEAK

Gela bat alokatzen da, bulegoko lanak, klase partikularak edota masajeak emateko. Zentroan. Interesatuek deitu: ☎: 943 55 29 46 - 943 55 46 97

Apartamentu berri bat (estrenatzeko) alokagai Kale Nagusian. ☎: 699 49 22 35.

ZERBITZUAK

■ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DY: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

■ FARMAZIAK

- Egunez: Chucla Kardaberaz 48 ☎: 943 551793
- Gaez: Chucla Kardaberaz 48 ☎: 943 551793